

KOSTUEN EGITURA

Enpresa baten gastuak ulertzeko eta kudeatzeko funtsezko tresna da kostuen egitura. Honek laguntzen digu enpresaren baliabideak nola banatzen diren, kostuak zertan eragiten duten eta nola murriztu daitezkeen aztertzen. Gainera, kostuen egitura ondo definitzeak aukera ematen du estrategia egokiak erabiltzeko eta ZuBabestuz-en gastuak modu arduratsuan kudeatzeko, gure helburua gazteei doako laguntza kalitatezkoa eskaintzea delarik.

HASIERAKO INBERTSIOA

Proiektua martxan jarri ahal izateko, lokala eta ekipamendua eskuratu behar ditugu. Hasierako inbertsioa gure zerbitzua emateko beharrezkoa den lehen urratsa da. Beheko taulan ikus daiteke lokalaren ekipamendu nagusia eta kostuak:

KONTZEPTUA	KOSTUA
Mahaiak	476€
Aulkiak	239,40€
Entxufe-erregletak eta softwarea	190€
GUZTIRA	905,4€

KOSTUEN BANAKETA

Hilabeteko gastuak kalkulatzeko, lehenik kostu mota desberdinak identifikatu ditugu, hau da, **kostu finkoak** eta **kostu aldakorak** bereizi. Ondoren, talde bakoitzeko kostu zehatzak aztertu ditugu.

KOSTU FINKOAK

Kostu finkoetan sartzen dira hilero berdin mantentzen diren gastuak, jardueraren bolumena edo parte-hartzaileen kopurua aldatu arren. ZuBabestuz-en kostu finkoak hauek dira:

KONTZEPTUA	KOSTUA
Lokala (Uggasa, alokairua)	300€
Mailegua	1.200€
Webgunea	13€
Langileen soldatak	5.400€
Publizitatea	60€
Materiala (papela, boligrafoak ...)	15€
GUZTIRA	6.988€

Kostu finkoak hilabetero ordainduko ditugun gastuak izango dira. Bakoitzak 1.800 euroko soldata izango du, alokairua hilabetero 300€-koa izango da, eta webgune bat izateko hosting-a eta domeinua 13€ izango dira.

Kostu finko hauek ezinbestekoak dira, gazteentzat doako zerbitzu bat ematen dugun bitartean, gure operazioak iraunkorrak izateko.

KOSTU ALDAKORRAK

Kostu aldakorrak, izenak dioen bezala, aldatzen diren gastuak dira. Kostu hauek produktuak edo zerbitzuak gehiago edo gutxiago ekoizten diren neurrian, igo edo jeitsi egiten dira.

KONTZEPTUA	KOSTUA
Ura	23€
Argindarra	90€
GUZTIRA	113€

Kostu finkoak eta aldakorrak gehituz, hilabetero guztira 7.101 € gastatuko ditugu. Bestalde, urteko kostua 85.212 €-koa izango da.